

## IX. ERANSKINA

### TITULARTASUN ERREALAREN ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

\_\_\_\_\_ jaun/andreak, \_\_\_\_\_ NAN zenbakidunak,  
\_\_\_\_\_ erakundearen titular/ordezkeri gisa, zeinak \_\_\_\_\_ IFZ  
eta egoitza fiskala \_\_\_\_\_ helbidean dituen,  
\_\_\_\_\_ (deialdiaren izena) izeneko jarduketaren esparruan  
SEEPetik eratorritako funtsen onuradun del aldetik,

#### ADIERAZTEN DU:

LEHENENGOA. – Ezagutzen duela irailaren 29ko HFP/1031/2021 Aginduaren 8. artikuluan ezarritakoa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduko 22.d) artikuluan exijitzen dena betetzeari dagokionez. Hain zuzen, horretarako, funtsen azken hartzailea identifikatzeko informazioa eman behar da: funtsen hartzailearen izen-abizenak eta titular errealean jaioteguna, titular errealtzat Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015/849 (EB) Zuzentarauaren 6. puntuko 3. artikuluan xedatutakoa hartuta.

BIGARRENA. – Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015/849 (EB) Zuzentarauaren 3. puntuko 6. artikuluan xedatutakoaren arabera, titular erreala(k) bezeroaren jabetza edo azken kontrola du(t)en pertsona fisikoa(k) d(ir)a, edo transakzio edo jardura bat egiteko ardura du(t)en pertsona fisikoa(k)<sup>3</sup>, kasu honetan:

TITULARTASUN ERREALA					
Bazkide edo akziodunaren izen osoa	NAN/AIZ Pasaportea	Nazionalitatea edo egoitza soziala	Jaioteguna	Partaidetza (%)	

HIRUGARRENA. – Badaki, eskatzen baldin bazaio, Eusko Jaurlaritzaren erakunde betearazleari titular erreala(k) egiaztatzen d(it)uen notario-akta entregatu beharko diola, baldin eta adjudikazioduna edo azken hartzailea merkataritza-sozietatea bada, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko

<sup>3</sup> Gutxienez honako hauek hartuko dira aintzat pertsona juridikoen kasuan, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015/849 (EB) Zuzentarauaren 3. artikuluko 6. puntuan ezarritakoaren arabera:

(i) <<Pertsona juridiko baten azken jabetza edo kontrola du(t)en pertsona fisikoa(k), erakunde horretako akzioen edo boto-eskubideen edo jabetza-eskubideen behar adinako ehunekoaren jabetza zuzenaren edo zeharkakoaren bidez, eramailearentzako akzioen zorroa barne, edo beste bitarteko batzuen bidezko kontrolaren bidez, salbu eta merkatu arautu batean kotizatzen duten eta Batasuneko Zuzenbidearekin bat datozen informazio-eskakizunen edo jabetzari buruzko informazioaren gardentasun egokia bermatzen duten nazioarteko arau baliokideen mende dauden sozietateak.

Pertsona fisiko batek kapital sozialean % 25eko partaidetza eta akzio bat izatea edo % 25etik gorako jabetza-eskubidea izatea zuzeneko jabetzaren adierazgarri izango da. Pertsona fisiko baten edo batzuen kontrolpean dagoen sozietate batek edo pertsona fisiko beraren edo batzuen kontrolpean dauden sozietate anitzek kapital sozialean % 25eko partaidetza eta akzio bat izatea edo % 25etik gorako jabetza-eskubidea izatea bezeroarengan zeharkako jabetzaren adierazgarri izango da. Aurrekoa aplikatuko da, ehuneko txikiago bat jabetzaren edo kontrolaren adierazgarri izan daitekeela erabakitzeko estatu kideek duten eskubideari kalterik egin gabe. «Beste bitarteko batzuen bidezko kontrola», besteak beste, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013/34/EB Zuzentarauaren 22. artikuluko 1. apartatutik 5. apartatura bitartean ezarritako irizpideen arabera zehaztu ahal izango da.

Ahal diren bitarteko guztiak agortu ondoren, eta susmorik ez badago, i) zenbakian ezarritakoaren arabera inor identifikatzen ez bada, edo identifikatutako pertsona edo pertsonak titular errealak ote diren zalantzarik badago, goi-mailako zuzendaritza-kargua betetzen duen pertsona fisikoak eta betebeharreko erakundeek titulartasun erreala norik duen identifikatzeko hartutako neurriak gordeko dituzte i) zenbakian eta zenbaki honetan ezarritakoaren arabera;

otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduan eta irailaren 29ko HFP/1031/2021 Aginduan ezarritakoari jarraikiz.

\_\_\_\_\_ (e)n, 20\_\_\_\_(e)ko \_\_\_\_\_ren \_\_\_\_\_(e)an

Sinatuta:

Kargua: